

B

BARREN

TOKIKOM



# Euskaltzaileen festa Soraluzen

ElCOIBAR - 878 zenb. - XXI urtea - 2013-09-20



emaiozu  
euskarari  
dale al euskeral



**DEBABE UDAL EUSKALTEGIA**  
ELGOIBAR: Kalebarren plaza, 2  
Tel.: 943 742 731



emaiozu  
euskarari  
dale al euskeral

ikasturteacurso  
**13/14**  
matrikula zabalik  
matrícula abierta

## IKASTAROAK

**Aurrez aurrekoak:** 2,3 edo 4 egun astean, mailaren arabera.  
Autoikaskuntza interneten bidez  
**Ikastaro bereziak** (enpresak, AISA, merkataria eta ostalaritza)  
**Perfilak** (Administrazioa, Osakidetza, Hezkuntza, ...)  
**HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak**  
**EGA**

**16 urtetik gorakoentzat**

**Matrikulaldia:** irailaren 27ra arte

**DIRU-LAGUNTZAK ETA BEKAK**  
Informa zaitez Udal Euskaltegian!

**MATRIKULA ORDUTEGIA**

**ELGOIBAR: 09:00 - 13:00 / 15:30 - 19:30**



## OSASUN GIDA



### OPTIKAK

**65\07**

**IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA**

Egunero:  
9:30-13:00  
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar  
Tel: 943 743 734

**183\12**

**UZURI**

- Optometria  
- Kontaktologia

Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00  
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

### HORTZ KLINIKAK

**171\12**

**LEKU EDER**

- Diagnostiko digitala  
- Estetika  
- Kirurgia eta inplanteak  
- Ortodontzia: haurrak eta helduak  
- Protesiak: finkoak eta eraginak  
- Odontologia orokorra  
- Higienea eta prebentzioa  
- Periodontzia (entzien tratamendua)  
- Haurrentzako tratamenduak  
- PADI

Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre enparantza,  
5 behea - Elgoibar  
Tel: 943 530 053  
lekueder@infomed.es

### OTORRINOLARINGOLOGIA

**183\12**

**UZURI**

- Entzumen protesia  
**BERRIAI**  
- Tapoiak neurria  
(uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)  
- Audiometriak  
- Audifonoak  
- Tonomeria

Egunero:  
9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel: 943 740 359

### FISIOTERAPIA

**271\12**

**AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA**

- Fisioterapia eta osteopatia  
- Eskuterapiak  
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)  
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 531 953  
Tel.: 669 565 745

**177\12**

**fisio&más**

**Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea**

- Esku-terapia.  
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)  
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).

- Mesoterapia homeopati-koa:  
+ Traumatologia.  
+ Estetika (zelulitisa, es-triak)

**Osasunerako ariketa agin-dua**  
(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

**Entrenamendu gidatua**

**Pilates makinak**  
(erabilitazioa)  
3 pertsona gehien.

**Txirindulariaren biomekani-ka** (kalak, ergonomia bizikle-tan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.  
Tel.: 943 740 191  
667 953 628



Amaia Larrañaga

Jose Luis, opor sa-soiak ematen digun lasaitasuna eta gozamen a ahaztu ezinda edo, gozatze-az jardutekotan naiz. Honetan ere, zenbat buru, hainbat aburu. Hemen nire gogoko batzuk: ba al dago senide edo lagunekin ma-hai bueltan tertulia ederrak egitea baino hoberik? Zelako plazera mendian ibiliz bertako usain, kolore, hots, hegazti... erreparatzea! Zeinek ez du gogoko loa? Zein lasaitasun, norbere maiteaz, itsasaldean, eguzkia sar-tzen ikustek!



Jose Luis Azpillaga

Ikusten dut bai ederki gozatu dituzula opor-garaiko plazer txiki-handi horiek! Ni ere burutik kendu ezinda nabil oraindik hondar-tzako egonaldi eta bainu ederrak, mendi-bueltaz zoragarriak, ikusitako paraje bikainak eta ezagututako pertsona maitagarriak.

Gozamena dela eta, zuk diozun moduan, euskarak berak ere ematen digu zerekin gozatua.

Nik ere gustuko dut Berria, Argia edo BARRÉN irakur-tzea. ETBko saio batzuk ere oso gustura ikusten ditut, esate-rako, Tumatak saio berria, Zuhaitz Gurrutxagak aurkezten duena. Horiez gain, une ederrak pasatu ditut euskarazko hainbat liburu, film eta antzezlanekin. Eta, azkenaldian, gero eta gehiago jarraitzen ditut Interneteko albistegiak (Elgoibarren, Zuzeu, Sustatu, Erabili...) eta euskal blogariak eta twiteroak. Gaur egun, zorionez, nahiko aukera zabala dugu nork bere gustuko gauzak euskaraz topatzeko.

**“Bada euskaraz zerekin gozatua, ezta?”**

Hauetan hizkuntzak ere, izan badu eraginik, eta honen harira, Argian, A. Agirre Euskadi irratiko informatibo buruak, besteak beste, dioen esaldi honi erreparatu diot: *Lortu beharko genuke euskara hutsezko gutizia batzuk eskaintzea, erdalduna denak senti dezan zerbait galtzen ari dela euskaraz ez jakiteagatik.* Jarraian, honakoa ere badio: *Katalanek, zentzu horretan, inbidia handia ematen didate.* (Horretan ez ezik, beste kontu batzuetan ere ematen didate, niri behintzat, joan zen astekoan, adibidez)

Berak irriti bidezko gutiziez dihardu, baina horrez gain, bada euskaraz zerekin gozatua, ezta? Neuk behintzat gozatu ederra hartzen dut Berriaz; Argiaz; Aizu! aldizkariaren partaide izanez; BARRENEK ematen didan gertutasunaz; ETBk eta 11TB-ren saioez; Euskadi eta Arrate irratia entzunez; Luma-k eskaintzen dituen denbora-pasez; Lertxundiak, Jaiok, Irigoienek... idatzitako liburuez; Leteren, Lertxundiren, Kupelaren... musikaz; eta horren egunerokoak ez badira ere, baita antzezlan eta pelikulekin ere, baina, batez ere, bertsoez, (txapelketa ere ate-joka da). Baina, Agirrek dioena, alegia, ez dakiena hau gutzia galtzen ari delakoa da lortu behar duguna. Eta horretan zein bidelagun hobea euskaltegiok baino! Ez duzu uste Jose Luis?

**“Gaur egun nahiko aukera zabala dugu nork bere gustuko gauzak euskaraz topatzeko”**

Ados nago Agirrek dioenarekin, alegia, lortu behar genukeela erdaldunak sentitzea zerbait galtzen duela euskaraz ez dakielako. Izan ere, sentimendu horrek momenturen batean euskara ikasteko desioa piztu diezaioke. Hala ere, eginkizun zaila delakoan nago: erdal mundua eta euskal mundua oso banatuta daudela iruditzen zait. Hau da, erdal munduan dabilenak oso gutxi edo batere ez duela ezagutzen euskal mundua. Zuk diozun moduan, euskaltegiok bidelagun onak izan gintezke lan horretan. Horretarako, ordea, guk geuk, irakasleok, euskal mundu horrek ikasleari zer eskaini diezaiokkeen ondo jakin behar. Hala ere, ahalegintzea merezi duela uste dut; izan ere, ikasleari bere interes edo gustuen arabera eskaintza interesgarrien berri ematea oso motibagarria izan liteke. Azken finean, gustuko jarduerak eta baliabideen bidez pozikago eta errazago ikasiko du.



X. URTEURRENA

**ROSARIO CACERES MARTIN**

2003ko irailaren 5ean hil zen.

*“Zauden lekuan zaudela, denbora pasa arren, zure senarrak eta seme-alabak ez zaituzte ahaztu.”*



# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 744 112 - Faxe: ☎ 943 743 704  
E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
Publizitatea: ☎ 943 743 704  
E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA**, **ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia  
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia  
PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz  
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue  
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrugarte, Mikel Olazola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi  
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA

## Laguntzaileak:



ELGOIBARKO UDALEA

elgoibar  
bizi bizia



MENDAKOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Elgoibarko Gau Krosa

Idatzi honen bidez, Mintxeta Atletismo Taldeak eskerrak eman nahi dizkie Elgoibarko Udalari, Udal Kirol Patronatuari, eta nola edo hala, beraien laguntza eskaini duten enpresa guztiei: Elgoibarko Kutxa, Marcajes Telleria, Pitxintxu liburudenda, Astigarraga etxea, Txarri-duna, Mahats Ardotegia, Usua Taberna, Gabi Jatetxea, King-Kong, Salento, Altxolako Urak, Iriondo Taberna, Kaiku, Zahor, Coca-Cola, El Diario Vasco, Baqué, Elgoibarko Gurutze Gorría eta El Corte Ingles.

Elgoibarko herriari ere eskerrak eman nahi dizkiogu ekitaldiaren antolatzaileei eskainitako laguntzagatik, baita gure herrira gaueko laugarren lasterketan parte hartzera eta ondo pasatzera etorri ziren atleta guztiei egindako harrera beroagatik ere.

Herriko Gau Kroseko xedea hauxe izan da: Nazioarteko Juan Muguerza Kroserako dirua biltzea, hurrengo edizioaren maila aurtengoa baino handiagoa izan dadin. Horregatik, lanean jarraituko dugu 2014ko urtarrilaren 12ra arte, LXXI edizioaren egunean Mintxetan elkar ikusiko dugun itxaropenez.

### Mintxeta Atletismo Taldea

### Joan zaizkigu herriko jaiak

Joan zaizkigu herriko jaiak, jaso ditugu txosnak eta Maalako parkeak berriz ere lehen-go itxura bera dauka. Baina guk badakigu ez-kutuan sekretu pila gorde dizkigula parke horrek. Txiki Eguneko erromerian, eta beste kon-tzertuetan dantzan jardun genuenoi irribarrea aterako zaigu aurrerantzean parketik pasatze-rakoan. Baita txosnetan lanean jardundakoei, edo euripean dantza egin genuenoi.

Bereziak dira herriko jaiak, eta herritarron artean antolatzeak, elkar ezagutzuz eta parte hartuz antolatzeak, are bereziago egiten ditu. Horregatik, gure partetik eskerrak eman nahi dizkiegu joandako bi asteotan tragoa eskuan edo amantala jantzita edo dantzarako gogoz gerturatutako guztiei.

Era berean, herriko gazteak zorientzea ere tokatzen zaigu, bai horixe! Urtetik urtera Gazteen Egunari kolore biziagoa emateko ahalegi-nean diharduzue, eta aurten inoiz baino gehi-go, igarri egin da hori. Zuen artean antolatzeko

erakutsi duzuen gaitasuna eredugarria da gainerako guztiontzako ere. Bejondeizuela!

Hobetzekoak agendan gordeta, pozik gaude aurtengo jaietan lortutakoarekin. Urtez urte, geu izateko bidea eskaintzen digu gune askeak, aske izateko bidea. Elkarlana, parte-hartzea, jai, plazera. Horixe dira jaiak; zain gaude datorren urterako!

### Maalako Jai Batzordea

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzue:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitzik argitaratuko.





**Autoa aparkatzean kontuan eduki behar da traba egiten duen ala ez:** "Trenbide kalean bi pibote zeuden lehen, aparkatzeko muga zehazten zutenak, baina orain bakarra dago eta gidari batzuk ez dute muga hori errespetatzen. Joan zen astean, auto batek aparkalekurako sarrera oztopatzen zuen, eta beste aldetik sartu behar izan nintzen, atzeraka. Gidariak kontuan hartu behar dute autoa aparkatzerakoan ia gainerrako autoak pasatzeko lekurik lagatzen duten edo ez".



**Herriko gune asko armiarna sarez josita egon dira:** "Txankakuako zubia esate baterako, dena beteta egon da eta lurrazpiko pasabidea armiarna sareen ondorioz itxi egingo zela zirudien. Burua makurtuta pasatu behar izaten nuen askotan. Herriko guneak garbi mantetzeko eskatu nahiko nuke".



**Eskerrik asko Santa Klara auzoko lurrazpiko pasabidea garbitu zuen gizonari:** "Santa Klarako tunela armiarmaz beterik zegoen abuztuan. Inork ez zuen garbitzen eta handik igarotzea ez zen erraza. San Bartolome Egunean gizon bat aritu zen tunela garbitzen. Ez dakigu nor zen baina *Ruso* izena erakusten zuen kamiseta beltz bat zeukan soinean. Eskerrak eman nahi dizkiogu".



**Elgoibarko Sanlo Eskubaloi Kirol Taldeko zuzendaritzak eskerrak eman nahi dizkie SanloBEER Festan parte hartu dutenei:** "Eskerrik asko aurreko asteburuan Maalan antolatutako Beerfest ekintzetan parte hartu eta festa antolatzen lagundu diguzuen guztiei. Era berean, sortu ahal izan ditugun endreuegatik kalteturik egon bada, barkamena eskatzen diegu".

Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:  
[baren@elgoibar.koizarra.com](mailto:baren@elgoibar.koizarra.com) 943 744 112

ESKERTZA

## MANOLO GIL CENGOTITA



*Beti gogoratuko dugu zure jarrera,  
gure bihotzetan egongo zara betirako.  
Asko maite zaitugu.*

2013ko irailaren 17an hil da, 85 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## Gazteen aisialdi ohiturak aztertzeko lehen tailerra irailaren 26an

13 eta 30 urteko gazteek hartu dezakete parte egitasmoan

**G**azteen aisialdi ohiturak aztertzeko jarri zuen martxan Udalak Gaztemapping egitasmoa, Manahmana enpresaren laguntzaz. Uda aurretik egin zuten egitasmoaren aurkezpena, eta orain hasiko dira gazteen behaketa lanarekin. 30 gaztek beste 30 gazte behatuko dituzte, aisialdi ohiturak aztertzeko. 13 eta 30 urte bitarteko gazteen ohiturak ezagutu nahi dituzte, gazteentzako aisialdi eskaintza hobetu ahal izateko. Ikerketa honetan gazteak izango dira protagonistak, bai ikertzaileak eta baita ikertuak ere. 30 profil desberdin egituratu dituzte arduradunek, eta profil horiek betetzen dituzten gazteen aisialdi ohiturak ezagutu nahi dituzte.

### Bi formakuntza saio

Behaketa prozesua bi astean zehar egingo dute. Lanetik edo eskolatik kanpoko orduetan dituzten ohiturak jasoko dituzte, eta horren arabera aterako dituzte ondorioak. Hori guztia



prestatzeko bi formazio saio aurreikusi dituzte, eta lehenegoa datorren astean bertan izango da, irailaren 26an, 18:00etatik aurrera, Kultur Etxean. Bigarren saioa urriaren 3an egingo dute. Azaroan zehar bildutako datuen analisia egingo dute, eta abenduan aurkeztuko dute gazteen aisialdi ohiturei buruzko diagnostia.

## Nekazaritza ekologikoari buruzko hitzaldia, eguaztenean

Dababarreneko bigarren aste ekologikoa antolatu du Debemenek, eta horren barruan hainbat ekitaldi izango dira eskualdean. Hasteko, nekazaritza ekologikoari buruzko azoka izango da bihar Eibarren, Urkizu plazan. Horrez gain, bi hitzaldi antolatu dituzte datorren asterako, eta horietako bat Elgoibarren izango da, eguaztenean. Biolurreko Maite Aristegi, Enrike Gisasola eta Nerea Arizabalagak nekazaritza ekologikoari buruzko saioa eskainiko dute, bailarako zenbait baserri-tarrein batera. Nekazal eredu ekologikoen ingurugiroan, eredu sozial alternatiboen baten eraikuntzan eta osasunean daukan onurak azalduko dituzte. 19:00etan izango da hitzaldia, Kultur Etxean. Eguenean, bestalde, abeltzaintza ekologikoari buruzko hitzaldia eskainiko dute Deban, Ozio Bide elkarte gastronomikoan, 19:00etan. Hemengo haragi eta esnekiei buruz egingo dute berba, eta dastaketa ere egongo da. Parte hartzeko izena eman behar da, 943 761 447 telefonoan.

## Pirritx eta Porrotx pailazoek kaleratutako ipuin bilduma batean parte hartu du Uxue Alberdik



Pirritx, Porrotx eta Marimototsek sexualitatea jorratzen duen lau liburuko bilduma kaleratu dute, eta horietako bat, Uxue Alberdi elgoibartarrak idatzi du. *Biluzik* bildumak haurrei sexualitatearen gaia gerturatzeko balioko du, jaiotzen gare-

netik hil arte bizitzen dugun zerbait delako. Adituek diote sexualitatea ikasi beharreko gauza bat dela, eta Elkar argitaletxeak Pirritx, Porrotx eta Marimototsen laguntzarekin haur txiki-txikizako liburuak egitea pentsatu zuen pertsonai kuttun hauen istorioak horretarako lagungarri izango direlakoan. Hala, *Porrotx ispiluan* liburuan ile urdineko pailazoak ispilurekin jolasean dagoela bere gorputza deskubrituko du eta, mutila denez, zakila duela. Marimototsek, ordea, bere gorputza lantanduz gozatuko du *Marimotots errekan* liburuan. *Pirritx titia ematen* liburuan amatasunaren gaia jorratzen da; Pirritxek bere bikiak elikatzen gozatzen du, eta Pupu eta Lorek amaren tititik jaten. Bihurri txiki horiek dira azken liburuaren protagonistak, *Pupu eta Lore zilipurdika*, eta horixe da hain zuzen ere Uxue Alberdik idatzi duena. Hondartzan, jolasean, neska edo mutila izateari garrantzia kenduko diote liburu horretan.



## Protagonista **Jurdan Ezenarro**



Jurdan Ezenarro mendararra ETB1eko *101 gaztelu* saioan parte hartzen ari da. Julian lantzik aurkezten duen abentura saioa da, eta Euskal Herriko 20 gaztelutan grabatu dute. *Basetxea* eta *El Conquistador del fin del mundo* saio arrakastatsuen haritik jaio da *101 Gaztelu* telerealitate saioa eta ETB1eko programazioaren apustu garrantzitsuenetako bat bat izango da aurtengo denboraldian.

Sei lagunez osatutako bi talde arituko dira lehian, eta kapitain bat izango du bakoitzak, Mikel Goñi eta Manu Maritxalar, hain zuzen ere. Goñiren aginduetara dagoen Zaldunen taldean dago Jurdan Ezenarro mendararra, eta, momentuz, ondo hasi du abentura berri hau, lehen atalean Maritxalarren Bilauak hartu zituzten-eta mendean Zaldunek. Domeka gauean ematen dute saioa.

## Irudia **Sargoateko iturria**

Morkaiko Mendizale Elkartek interes berezia duten mendi inguruak auzolanean berreskuratzeko proiektua jarri du martxan. Lehen saioan Sargoateko iturria berrituko dute. Horretarako Iturri inguruko lur saila erosi du Morkaikok, hektarea bat gutxi gora behera. Urriaren 5ean hasiko dituzte lanak, eta udazkeneko bizpauri larunbatetan joango dira Sargoate iturri ingurua txukundu eta zuhaitzak landatzera. Herritar guztiak daude gonbidatuta auzolanera. Morkaikokoen esanetan, garrantzitsua da proiektu hau azolanean aurrera eramatea: "bai nagusi eta bai haur. Beti izan da gure inguruan auzolanean aritzeko ohitura eta guri ere egokia iruditzen zaigu hala jardutea". Lana, jana, edana eta lagun giro ona ez direla faltako aurreratu dute arduradunek. Dena ondo prestatu ahal izateko, aurrez izena emateko eskatu dute, eta horretarako hainbat aukera daude: [morkaiko@morkaiko.net](mailto:morkaiko@morkaiko.net) helbidera e-mail bat idatzi edo elkarteak Errosario kalean duen lokalera joan daiteke, astelehen edo ostegunetan 19:00etatik 20:30era.



## **San Roke jaietako zozketa**

San Roke jaietako errifaren zozketan 1.018 zenbakia izan da sari-duna (2.903 erreserbakoa). Janariz eta edariz beteriko karretila bat ego-kitu zaio errifa horren jabeari.

## **Matrikulazio epea zabalik, AEK euskaltegian**

2013-2014 ikasturterako matrikulazio epea zabaldu du AEK euskaltegiak. Aurten ere, maila desberdinetako ikastaroak egongo dira aukeran: Batetik, Euskalduntze orokorra eskainiko dute, euskaraz ezer ez dakitenentzat edo pixka bat jakinda, gehiago ikasi nahi dutenentzat. Horrez gain, administraziorako, irakaskuntzarako edo Osakidetzarako hizkuntza eskakizunak prestako ikastaroak ere egongo dira, eta HABA nahiz EGA tituluetakoz azterketa ofizialearako ikastaroak ere eskainiko dituzte. Gurasoek, langabetuek eta ikasleek matrikula erdia ordainduko dute, eta dagozkien baldintzak betetzen dituzten guztiek beka sisteman parte hartu ahal izango dute, Udalak emandako dirulaguntzari esker. Irailaren 25era arte dago izena emateko epea; AEK euskaltegian bertan, 607 601 423 telefonora deituta edo [elgoibar@aek.org](mailto:elgoibar@aek.org) helbidera idatzita.

## **‘Dolmenen ibilbidea’, domekan**

Debegesak antolatuta, *Dolmenen ibilbidea* egingo dute domekan. Bisita gidatua izango da eta hiru ordu t'erdiko iraupena izango du, Karakate-Irukurutzeta mendilerroan barrena. Gure arbasoen ezagutzan sakondu ahal izango dute bisitariak, bidean dauden arrastoetan oinarrituta, eta horiei buruzko azalpenak jasoko dituzte. 10:00etan abiatuko dira Karakateko aparkalekutik. Izena emateko 943 19 11 72 edota 695 78 36 56 telefonoetara deitu daiteke. Ibilaldiaren prezioa 12 eurokoa izango da, hamaiketako barne. 12 urtetik beherako umeentzat, doan izango da.

# AINHOA MENDIBIL

ELGOIBARKO IZARRAKO KIDEA

“Euskararen aldeko herri mugimendua gara, eta Topa Eguna euskaltzaleekin ospatu nahi dugu”



Topaguneak eta bailarako euskara elkarteek antolatuta, Topa Eguna ospatuko dute Soraluze datorren irailaren 28an. Aldarrikapena eta ospakizuna uztartu nahi dituzte antolatzaileek, eta euskaltzale guztiak jaian parte hartzera gonbidatu dituzte. Topa Eguna antolatzeko bailarako talde eragilean parte hartu du Elgoibarko Izarrako Ainhoa Mendibilek, eta berari galdetu diogu eguna zer izango den. Horrekin batera, euskalgintza eta Elgoibarko Izarra hausnarketa fase batean murgilduta daudela ere kontatu digu.

## Zer da Topa Eguna?

Topagunearen Eguna da Topa Eguna. Topagunea deitzen diogu euskara elkarten mugimenduari, eta beraz, euskara elkarten eguna ospatuko dugu Soraluze. Gure asmoa egun hori animatzen diren euskaltzale guztiekin ospatzea da. Topagunearen baitan hausnarketan pasa ditugu bi urte, zer garen, zer lortu nahi dugun, nola... Eta herri mugimenduaren aldeko apustua egin dugu. Euskararen aldeko herri mugimendua gara, eta hortaz, egun hori euskaltzale guztiekin ospatu nahi dugu.

Zenbat euskara elkarte osatzen duzue Topagunea?

Euskal Herri osoan 97 elkarte gara; 20.000 bazkide guztira. Denok ere euskararen sustapenean dihardugu lanean, baina bakoitzak bere modura. Alabaina, az-

“Denen gustuko egitaraua egiten ahalegindu gara, eta lortu dugula uste dut”

ken bi urteotan mugimendua batzearen aldeko apustua egin dugu. Bakoitzak berean jarraituko dugu, noski, baina mugimendua bateratzearen aldeko pausuk ere ematen ari gara. Bakoitzak berea egin ez, denon artean geurea egiteko. Elgoibar euskalduna nahi dugu, baina hori Euskal Herri euskaldunaren baitan kokatzen dugu.

‘Emaiozu balorea’ da eguneko lema eta bi ardatz aipatu dituzte aurkezpenean: euskaltzaleetasuna eta auzolana. Jaia aldarrikapenekin batera dator, ezta?

Bai. Elkarteetan urte osoan egiten dugun lanak daukan balorea aldarrikatu nahi du-



gu batetik, eta euskararena berarena, bestetik. Era berean, auzolana azpimarratu dugu hori delako euskara elkarteek beste herri mugimendu batzuekin lan egiteko modua, eta euskaltzaletasuna, aldarrikatu nahi dugulako homogenizazioaren eta individualismoaren aldean badela beste bide bat munduko hizkuntza aniztasuna zaintzearen aldekoa.

### **Egitarau oparora antolatu duzue. Goizean umeak, berbalagunak, kale-kantariak... denak gogoan.**

Bai, denen gustuko egitaraua egiten ahalagindu gara, eta lortu dugula uste dut. 11:00etan harrera ekitaldiaren ostean hasiko dira lehenengo ekintzak. Umeentzako, kalejira antzerako bat prestatu dugu: Umeen Hiria. Franscesco Tonucci pedagogogo Italiarrak idatzitako liburuaren izena jarri diogu ekintzari. Izan ere, euskara elkarteetako hainbat aisaldi taldek bere teoriak praktikan jarri dituzte aurtengo udalekuetan. Umeen autonomia, kritikotasuna eta antzerako gaiak lantzen ditu Tonuccik *Umeen Hiria* liburuan, eta hari erreferentzia egingo dio lehenengo ekintzak. Horrez gain, herri desberdinetan kale kantari moduan ibiltzen direnek elkarrekin kaleak alaitzeko Kantu-jira ere hasiko da 11:30 inguruan, baita Andrabanda feminista, eta Berba-probak ere.

### **Zer dira Berba-probak?**

*Tertuliak* programaren harira Arabako Mintza Egunerako sortutako jolas moduko bat da. Hizkuntzarekin jolastea da helburua, eta bereziki *Tertuliak* programako partaideei begira sortu zen arren, edozeinek hartu dezake parte. Hori bai, herri baikoitzetik talde bana eramatea komeni zaigu, beraz, parte hartu nahi duenak eman dezala izena elkarteetan.

### **Jon Sarasuak bere liburu berria aurkeztuko duela entzun dugu.**

Bai, inprentatik atera berria da *Hiztunpolisa* liburua. Euskalgintzaz dihardu eta liburua Soraluzen aurkeztea aukera polita iruditu zitzaigun guztioi. Bere gogoetaz jositako dago liburua, motzean idatzita guztiak ere, eta erraz eta gustura irakurtzeko moduan. Aurkezpen-hitzaldia ere horrelako zerbait izango dela imajinatzen dut.

### **Bazkaria ere antolatu duzue. Zer egin behar du bertan bazkaldu nahi duenak?**

Elkartera etorri eta izena eman irailaren 25a baino lehen. 12 euro balio ditu tiketak (langabetu eta ikasleentzat 10 euro eta umeentzat 6). Bazkariaren inguruan aipagarria da familientzako bazkari berezitua antolatu dugula, frontoian, gero Irrien Lagunak egongo diren lekuan.

### **Hezitzaileentzako zerbait berezia antolatu duzue, ezta?**

Bai, uda umeentzako jolasak prestatzen ematen dutenez, bazkalostean eurek euren artean jolasteko aukera izango dute. Topaketa bat izango da hezitzaileentzako, euskara elkarteetan antzerako lana egiten dutenak elkar ezagutzeko topaketa bat.

### **Goizean hasi eta goizaldera arte luzatuko da festa?**

Bai, nahi duenarentzako lotarako lekua ere egongo da gainera! Arratsaldeko ekitaldi nagusiaren ostean hasiko da gaueko festa. Erromeria, lehenengo, Soraluzeke Xero Xiete taldearekin, eta ondoren, 22:30ean, Kokein eta Goseren kontzertuak egongo dira.

### **Ez da erraza izango horrelako egun bat antolatzea. Lan ere egin beharko du norbaitek, ezta?**

Bai, egia da, egunean zehar lan ugari egongo da egiteko. Elkarteko bazkideei bidali diegu txandetan parte hartzeko gonbidapena, eta bazkide izan gabe ere, elgoibartarren bat laguntzeko prest egonez gero, eskertuko diogu!

### **Topaguneak bi urteko hausnarketa egin du eta Elgoibarko Izarran ere horretan diharduzue. Zer pasatzen da?**

Pasatzen da batzuetan behar beharrezkoa dela eseri eta egiten dugunaren inguruan hausnartzea. Eta hau momentu ona da horretarako. Elkarrekin 50 urte bete ditu eta horrelakoetan ohikoa den moduan iraganari hautsa kentzen jardun dugu; horrek beti laguntzen du nora joan nahi dugun erabakitzerakoan. Horrez gain, azken hogeitau urteen balorazio sakon bat ere egin berri genuen, eta beraz, horrek asko erraztu ditu etorkizunaren inguruko eztabaidak. Oinarri filosofikoak adostu ditugu eta orain hurrengo hiru urteetarako Plan Estrategikoa prestatzen dihardugu.

### **Fase berri baten aurrean gaude?**

Esango nuke baietz. Baina ez soilik gurean. Euskalgintzan, orokorrean, eztabaida sakinak eman dira azken bi-hiru urteotan, eta



## **EGITARAUA**

11:00etan harrera

- Umeen hiria
- Berba Probak
- Andrabanda Feminista
- Kantu jira

12:00etan Jon Sarasuaren liburu berriaren aurkezpena

14:30etan herri bazkaria.

Bazkalostean:

- Irrien lagunak
- Kultur gindak
- Hezitzaileentzako jolasak
- Kalejira

18:00etan ekitaldi nagusia.

Iluntzean Xero Xiete erromeria

22:30 kontzertuak

- Kokein
- Gose

gauzak aldatzen ari dira. Gurean, mugimendua, auzolana, herria, kontzientziazioa edo bazkideen parte hartzea bezalako kontzeptuak pisu handia hartzen ari dira, eta hori igerriko da hurrengo urtetik aurrera.

**Ainhoa Andonegi**



# Natalia Mellado

## ABESLARIA

Natalia Melladok (Elgoibar, 1975) gazte-gaztetatik erakutsi ditu kanturako doaiak: 11 urterekin sartu zen tunan, eta 15-16 urte zituenerako musikan erabat murgilduta zegoen. Harrezkero ibilbide luzea egin du musika munduan, baina orain arte bakarkako diskorik atera gabe zuen. *Caminos de vuelta* izena jarri dio bere lehen lanari. Herrialde ezberdinetako herri musikari bere ahotsa jarri dio abeslari elgoibartarrak.

**“Beste estilo batzuetako musika abesteko gai naizela erakutsi dut nire lehen diskoan”**

Musikatik bizitzen urte asko daramatzazun arren, estreinako diskoa atera berri duzu. Zergatik orain?

Txikitatik barruan neraman zerbait ateratzeko unea ailegatu zela sentitzen nuelako. Badau- de abeslariak edo taldeak diskoak urtero ateratzen dituztenak. Nik ezingo nuke hori egin, barrutik atera behar zait-eta. Zerbait kontatzeko beharra sentitu behar dut disko bat grabatzen hasteko. Nahiak eta ahalak





bat egin duten unean atera dut nire lehen lan diskografikoa.

#### Zer aurkituko dugu zure lehen diskoan?

Umetatik nirekin izan ditudan abestietako batzuk sartu ditut diskoan, eta horiek jazzaren eta flamenkoaren eragina duten abesti latinoekin uztartu ditut. Hara hor diskoaren osagaiak. Koplak kantatzen hasi nintzen, bai, baina beste era eta estiloetako musika egiteko gai naizela erakutsi nahi dut. Koplak alde batera laga eta beste estilo batzuetako musikak azalera-tu nahi nituen, horien eragina ere jaso dut-eta.

#### *Caminos de vuelta* izena jarri diozu.

Bi arrazoiengatik jarri genion *Caminos de vuelta* izena diskoari. Batetik, Flamenko puruan joan-etorriko abestiei deitzen zaielako horrela, hau da, Espainiatik Latinoamerikara bidaiatu eta beste esentzia batekin itzuli diren abestiei. Esaterako, Guajirak, abesti kolonbiarrak, e.a. Eta, bestetik, nik ere horrela egin nahi izan dudalako nire abesti kuttunekin. Berriz jo dut hunkitzen nauten abestietara, baina nire ukitua eman diet.

#### 11 abestik osatzen dute diskoa. Zaila egin zaizu aukeraketa?

Bai, hala da. Mexiko, Uruguay, Argentina, Ekuador, Txile, Kuba eta Portugaleko abesti bana sartu ditut diskoan, eta gainerakoak Espainiakoak dira, 11 kantu orotara. Neure egin ditut herrialde bakoitzeko kantu herrikoiak. Aukeraketa, berriz, nire gustuen arabera egin dut. Bada baina atera gabe geratu zaidan arantza bat, euskal kanturen bat ez sartu izana. Zalantzan egon eta gero, ez sartzea erabaki nuen. Izan ere, aukerarik badaukat, disko gehiago grabatzea gustatuko litzaidake aurrerago. Ilusio berezia egingo lidake euskal kantuz osatutako disko batek. Errepertorio luzea daukat prest, Elgoibar-ko Herriko Antzokian duela bi urte eskaini nituen hainbat abestiz osatua.

#### Eta noizko zure abesti propioak?

Badauzkat prest horiek ere. Hurrengo pausoa izango da, orain ez baita era horretako abestiak kaleratzeko une egokia. Izan ere, jendeak arreta gehiago jartzen die lehendik entzunda dituen abestiei. Badauzkat jarraitzaileak, Facebook-en adibidez lagun askok jarraitzen dute nire ibilbidea. Hala izanik ere, nire burua ezagutze-

**“Ilusio berezia egingo lidake euskal kantuz osatutako disko bat ateratzek”**

ra eman behar genuela baloratu genuen. Hortaz, estreinako disko honekin bidea zabaldu nahi dugu. Estrategia oso ezaguna da musikaren munduan gabiltzanontzat. Gauzak dauden moduan, gainera, ez dago beste aukerarik.

#### Gustura geratu zara emaitzarekin?

Oso gustura. Jendeak iritzi bera duen ikustea geratzen da orain. Lehen singlea, Violeta Parra txiletarraren *La Jardinera* kantua, dagoeneko ari da bere bidea egiten Txile, Brasil eta Peruko irratietan.

#### Musikari ezagunen kolaborazioa izan duzu zenbait abestitan.

Bai, Oscar Herrero gitarra-jotzaile kontzertistarena, esaterako. Ezaguna da mundu mailan, eta *La Media Granadina*

abestiaren grabazioan hartu du parte. Berekin lan egin izan dut. Yemenen eta Jerusalemene eskaini zituen ikuskizunetan parte hartzeko deitu ninduen, eta esperientzia izugarri aberasgarria izan zen. Beste mundu bat da Yemen. Hango kalexketan sartu ginenean Alibabaren ipuina bizitzen ari nintzela iruditu zitzaidan. Hala esan nion ondoan nuen lagunari ere, ‘lagaidazu segundu bat ikusten ari naizen guztia barneratzeko, hau ezin da-eta egiazkoa izan’. Gogoan dut Espainiako enbaxadan eskaini genuen ikuskizunetako bat: bi saio egin behar izan genituen, emakumezkoentzako bata eta gizonezkoentzako bestea. Niri, nola ez, emakumeen aurrean aritzea egokitu zitzaidan. Burkarekin goitik behera tapatutako emakumeek osatzen zuten nire publikoa. Eskerrak errezatu eta gero burkak kendu zituztela. Oso atseginak izan ziren nirekin. Ordubeteko saioa eskaini behar nuen arren, bigarren abestirako eszenatokitik jaisteko eskatu zidaten, eurekin argazkiak ateratzea nahi zuten eta besarkadaka eta muxuka hasi zitzaizkidan. Afaltzera ere gonbidatu ninduten. Egoera nahiko surrealista izan zen, gitarra-jotzaileak emakumeen aurrean egon ezin zuenez, play-back bat pres-



tatu behar izan genuelako, eta hori mar-txan jartzeko ardura zuen gizonak ere kanpoan egon behar zuen.

**Azken urteetan hamaika plazatan ibili za-ra artista ezagunen ondoan (Manolo Es-cobar, Raphael...).** Jaso al duzu haien aholkurik?

Diskoa ahal dudan gehien zabaldu eta mugitzeko esan didate. Duela gutxi izan nuen Raphaelekin egoteko aukera, eta berak kontzertuen ostean saltzen dituela disko gehien esan zidan. Diskoak saltzea izugarri zaildu da. Fnac, El Corte Ingles eta antzerako lekuetan diskoak saltzea ia ezinezkoa da garaiotan. Nire diskoko abestiak iTunes eta Spotify bitartez salduko dira sarean. Ematen ditudan kontzertuetan ere salduko ditut. Kontzertuetara joan ezin dutenek ere izango dute, baina, diskoa eskuratzeko aukera. Interesatuak nire helbide elektronikora (*nataliamelladocd@gmail.com*) idatzi dezakete. 12 euroren trukean sinatuta jasoko dute diskoa. Nire web orrialdean dago informazio osoa (<http://www.nataliamellado.com>).

**Diskoa aurkezteko birarik egingo duzu?**

Madrilen aurkeztuko dugu bira, baina oraindik lotu gabe daukagu nora joko dugun. Alabaina, saiatuko naiz iparralde-rantz ere joaten, eta Elgoibarrera ere, noski. Gustatuko litzaidake nire diskoa Herriko Antzokian aurkeztea. Era berean, diskoan musika latinoa ere sartu dugu-

**“Nahiago nuke diskoa salduko balitz, baina ez dut dirua irabazteko atera”**

nez, beste herrialde batzuetara joatea ere nahi nuke, horretarako aukerarik suertatzen bada.

**Musika industria dagoen moduan egonda, krisian, zer suposatzen du gaur egun disko bat ateratzek?**

Nahiago nuke diskoa salduko balitz, eta asko gainera, baina, CD hau ez dut dirua irabazteko atera. Ekoizpenean gastatu dugun dirua berreskuratuko dudan ere ez dakit-eta! Nire buruaren promozioa egiteko atera dugu diskoa eta baita gauza ezberdinak egiteko gai naizela erakusteko ere, koplak kantatzeagatik ezaguna naize-nez, koplari gisa sailkatu naute-eta. Dena dela, argi laga nahi dut sekula ez dudala izan afanik famatua izateko. Ondo dakite hori nire ingurukoek. Salvameak, De Lu-xak eta horrelakoak ez dira niretzako. Gustatzen zaidanean lan egiteak ematen

dit zoriontasuna. Jainkoari eskerrak musika-kaz bizitzeko aukera daukat.

**Nork ekoiztu dizu diskoa?**

Diskoetxe bat baino gehiagoren eskaintza jaso genuen arren, ez onartzea erabaki genuen. Senarrak eta biok zigilu diskogra-fiko berria sortu dugu, geuk ekoiztea zela onena erabaki genuen-eta. Cabalgache izena jarri diogu. Hartara, gure esku dago erantzukizun eta kontrol osoa. Gastuak geuk egingo ditugu eta onurak ere, baldin badaude, guk jasoko ditugu.

**Nola bizi du krisialdia Madrilen bizi den musikari batek?**

Kulturaren munduan gabiltzanok izugarri igarri dugu krisia. Aldaketa asko egon di-ra. Nabarmenena, beharbada, lehen mo-mentuan kobratzen genuela. Orain, lana egin eta gero, asko itxaron behar da ko-bratzeko. Gainera, sarrerak asko merkatu behar izan ditugu. Jendeak eguneroko gauzetarako dirurik ez badu, ezin du dirua ikuskizun batean gastatu. Udaletxe askok arazo ekonomikoak dituzte eta ikuskizu-nak kontratatzeari laga diote, edo asko murriztu dituzte. Egoerara moldatu behar izan dute musikari askok, musikari kopu-rua murriztuz batzuk edo emanaldiak zu-zeneko musikaririk gabe eskainiz, beste batzuk. Zorionez, Raul Ramos nire sena-rra pianista da eta errazagoa zaigu Udale-kin akordio batetara iristea. Ahalegin guz-tia egiten dugu gure ikuskizunetara zuzeneko musika eramateko.

**Ahotsa da zure musika tresna. Hasi zinenetik hona igarri al duzu ahotsa aldatu zaizunik?**

Hogei urte nituenean baino eginagoa daukat orain ahotsa. Esaten dute-nez, 35 bat urte ditugunera arte jarraitzen du ahotsak aldatzen edo ga-ratzen. Nik 38 urte beteko ditut aur-ten eta egia da ahotsa sendoagoa eta eginagoa igartzen dudala. Goi erregistroak eta behe soinuak bere lekuan dauzkadala uste dut. Aurre-rantzean, hortaz, orain daukadan ahotsarekin jarraituko dut eta horri etekina ateratzen asmatzea izango da gakoa.





## Hiru kontzertu antolatu ditu Sinuosek, 'Sotoko Hotsak' egitasmoaren barruan

Eguenean hasiko da egitasmoa, Borrokan taldearen kontzertuarekin

**S**otoko Hotsak musika egitasmoaren barruan, hiru kontzertu antolatu ditu Sinuosek, irailaren 26tik 28ra bitartean. Aurtengo edizio-rako kartel berezia prestatu nahi izan dute. Borrokan talde beratarren zuzeneko potentia ekartzeaz gain, Euskal Herriko mugak gainditu eta Kataluniatik bi talde berezi ekarriko dituzte, Cuzo eta Za!. Denak rockaren inguruan mugitzen badira ere, esperimentazioa edo psikodelia lantzen duten proposamenak izango ditugu entzungai. Egueneko kontzertua 22:00etan hasiko da, eta barixakuan eta zapatuan 23:00etan izango dira saioak. Kontzertu guztiak Kultur Etxeko sotoan izango dira.

Borrokan taldeak ekingo dio aurtengo Sotoko Hotsak egitasmoari. 90eko hamarkadaren erdialdean sortu zen gaur egun boskote den talde hau. 98an *Museum* bilduman parte hartu

zuen, eta 2002an lehendabiziko lan luzea argitaratu zuen; *Borrokan*. 2007. urteko irailean *Hitzez ulertu ezin dena omendu nahi nuke*. *Oraintxe!* diska kaleratu zuten, eta aurtien *Zuak* izeneko lana argitaratu dute. Post-Rock estilokokatu izan dute taldea, baina etiketa horren aurrean dibertsitatearen aldeko apustua egiten dute.

Barixakuan Cuzo taldearen kontzertua izango da. Black Sabbath edo Blue Cheer bezalako 70. hamarkadako rockatik edo Goblin-egatik markatutako hasiera batetatik aldentuta, diskurtso pertsonalago batera jo dute, baina beraien erreferenteak bistatik galdu gabe. Malenkoniarako, jai girorako edo ikerketa pertsonalerako tartea eskainiko dute.

Zapatuan, azkenik, Za! taldeak eskainiko du kontzertua. Bi pertsonak eta bi instrumentuk baino gehiagok osatzen dute taldea. Baxu lodiak eta distortsioak, antzinako erritmoak, free-



jazza, psikodelia, Tuvako artzainen kantuak, Monty Python, kapa askotako post-rocka, elektronika analogikoa eta abar entzuteko aukera izango da.

## Gaur arratsaldean itzuliko da Kiribil Kalegoen plazara

Kiribil barraskilo erraldoiari ere amaitu zaizkio oporrak, eta gaur arratsaldean itzuliko da Kalegoen plazara. 17:30ean hasiko da saioa. Elgoibarko Izarrak antolatzen duen egitasmo honen gaia musika izango da aurtengo ikasturtean. Musikarekin jolas eginez, euskararen erabilera sustatzeko ahalegina egingo dute arduradunek. Bi urtetik sei urtera bitarteko umeentzako eta euren gurasoentzako egitasmoa da Kiribilka, eta hortaz, umeak ez ezik, gurasoei gonbidapena egin diete txutxiamaikako arduradunek. Hurrengo saioak urrian 4an eta 20an izango dira.



## Gurasoek euskara ikasteko diru-laguntzak

Euskararen transmisioan eragiteko asmoz, Elgoibarko Udaleko Euskara Batzordeak gurasoek euskara ikasteko ikastaro bereziak antolatu ditu, herriko euskaltegi eta ikastetxeekin elkarlanean. Hiru ikastaro berezi izango dira: Euskalduntzen, hobeto eta errazago hitz egiten ikasteko ikastaroa eta hobeto idazten eta irakurtzen ikasteko ikastaroa. Udalaren dirulaguntzari esker, 0-12 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoek matrikula erdia ordainduko dute eta kurtsoan zehar asistentzia eta aprobetxamendu ona izanez gero, beka ere jasotzeko aukera izango dute. Informazio gehiagorako Euskara Sailera (943 744 366) jo daiteke.

# MARIMAISTRA

Euskararen gaineko kontsultorioa

**TOKIKOM** herri komunikabideen elkarteak eta **Goienak** sustatuta, **Marimaistraren kontsultorioa** hasi zen atzo. Euskararekin ditugun kezkak, zalantzak eta galderak argituko ditu **Marimaistrak**, ostegunero. Galderaren bat egin nahi izanez gero, hiru aukera dituzue: **Twitter** kontuaren bidez (**@mari\_maistra**), **email**ez (**galdetu@marimaistra.com**) eta **Whatsapp** bidez, **668 889 192** zenbakian. **Marimaistraren saio guztiak** **www.elgoibarren-net** atarian edo **mari-maistra.com** blogean aurkituko dituzue.

## “Euskararik ederrena egiten dena da”

### Aurkeztuko al diguzu zeure burua, **Marimaistra**?

Ai, laztana, gauza asko jakin nahi dituzu zuk. Labur esateko, euskaldun zabarron laguna naiz. Laguna eta laguntzailea. Badakit jende asko bizi dela euskaraz eta euskararekin arduratuta, eta sarritan ahalegin handia ere badela. Baina kariño guztiarekin bada ere, batzuetan ez dugu hizkuntza behar bezala zaintzen, eta sekulako triskantzak egiten dizkiogu. Horiek konpontzen laguntzera nator ni.

### Laguntzera? Zer egin behar duzu ba?

Euskaldun zabar maitagarriok euskararekin dituzuen kezka, zalantza eta galdera guztiak jaso eta, pixkanaka-pixkanaka, guztiari erantzun. Euskararen gaineko kontsultorio moduko bat izango da. Eta, emakume modernoa naizenez, erantzun horiek gainera telebistaz eta internet bidez ere emango ditut. Tokiko hedabideetako webguneetan ikusi ahal izango nauzue, **www.elgoibarren.net**-en adibidez, toki-ko telebistetan eta, noski, internet bidez ere bai, **Marimaistra.com** blogean.

**Atzo egin zenuen estreinaldia. Galdera asko jaso al zenituen?**

Bai, lan asko pilatu zait dagoeneko, baina hori ona da. Youtubeko bideoa 1.500 lagunek ikusi dute eta buruan beti jira eta buelta izaten den zalantza horiek ateratzeko balio izan du: “futbolearen jolastu egiten da edo jokatu? Eta musean?”. Etxe askotan beti ibiltzen dira hizkuntzarekin duda-mudatan, eta seguru nago zuenean sortzen diren zalantzak beste askorentzat ere baliagarri izango direla. Horretan ere auzolana behar dugu!

### Zure kabuz sortu al zen egitasmoa?

Ezzzz. Hirukote bat dago atzean: Leire Narbaiza, Joxe Rojas eta Iban Arantzabal. Saltsero samarrak dira hirurak, eta aspaldi zebiltzan niri lagundu nahian. Bazkaloste zoro horietako batean, animatu, eta joan izan dira Goienako platora. Hango jendearen laguntzaz da posible Ergatibo Gorenaren argia zuen pantailetaraino heltzea. Narbaizak kamera aurrekoetan laguntzen dit eta Rojasekin batera gidoiak ere egin behar izaten dira. Gero Pernan Goñi lagunak ere erretratu eder-ederrak egin dizkit... Den-dena, hori bai, Mitxelenaren gerizpean.

**Bueno ba eskerrik asko, Marimaistra, gurekin egoteagatik. Adi-adi egongo gara ea zer gomendio ematen diguzun.**

Mila esker, amante! Edonola ere gogoratu: euskararik ederrena, egiten dena da. Barandiaranen betaurrekoek argi diezazutela bidea!!!





# ‘Emadazu eskua’ dokumentalaren grabazio saioak egin dituzte Elgoibarren eta Deban

Ezintasun neurologikoa duen neska elgoibartar baten istorioa jasoko dute dokumentalean

Udako geldialdiaren ostean, irailean ekin dio berriro Zeresatenjuenaz ekoiztetxeak *Emadazu eskua* dokumentalaren grabazioari. BARRENEK aurreratu zuen bezala, Itxaso nerabe elgoibartarra izango da protagonista. Lau hilabete zituela ezintasun neurologikoa diagnostikatu zioten medikuek, eta egoera horretan bizitza nolakoa den azalduko dute dokumental honekin. Joan zen zapatuan Elgoibarren eta Deban egin zituzten grabaketak, Jone Uranga eta Antxon Gurrutxaga Itxasoren aiton-amonekin, eta Maialen Gurrutxaga izebarekin.

Lorea Perez de Albeniz elgoibartarra da egitasmo honen atzean dagoen arduradunetako bat, eta berak esandakoaren arabera, produkzioa aurrera doa, baina nahi luketena baino astiroago. Finantzaio arazoak izan dituzte, eta produkzioko langile gehienek beste lan batzuk uztartu behar izaten dituzte dokumentalarekin batera. Hala ere, dokumentalak aurrera jarraitzen du: marrazkiak animatzen hasi dira, eta Itxasoren eskolako haurrekin egin beharreko atalak grabatu dituzte dagoeneko.

Arg: Goiuri Aldekoa-Otalora.



## Elgoibartarrei eskerrak

Dokumentala ekoizteko herritarren dirulaguntza eskatu zuten arduradunek, eta Elgoibarren bereziki harrera “oso ona” izan du egitasmoak. Elgoibartar askok eman dute dokumentala ekoizteko laguntza, eta orain arte bost mila euro inguru lortu dituzte herritarren eta hainbat elkarteren laguntzarekin. “Horrek oso pozik jarri gaitu”,

esan du Lorea Perez de Albenizek, eta bihotzez eskertu nahi ditu laguntza eman duten guztiak. Hala ere, beste finantzaio bide batzuk ere lantzen ari dira, “proiektuak aurrera jarraitu behar duelako”.

Egitasmoari buruzko informazioa eskuratzeko edo laguntza emateko, ondorengo bloga kontsultatu daiteke: <http://emadazueskua.blogspot.com>

## Elgoibarko natura izango da Udalak argitaratuko duen 2014ko egutegirako gaia

Elgoibarko Udalak, Ongarri argazki taldearekin batera, 2014ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa antolatu du. Aurtengo gaia Elgoibarko natura izango da: landaguneak, baserriak, basoak, ibai-errekak, baserriko bizimodua, lana, animaliak, ortuak, tokiko produktuak... Ez dira onartuko Elgoibarri erreferentziarik egiten ez dioten argazkiak, hau da, edonongoak izan daitezkeen argazkiak, herriaren identifikaziorako inolako argibiderik ematen ez dutenak. Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenek izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera, eta partaide bakoitzak sei argazki auzeratu ahal izango ditu gehienez. Antolatzaileek hamabi argazki aukeratu dituzte, hilabete bakoitzerako bat, eta argazki aukeratuak argazki bakoitzaren egileak 70 euroko saria jasoko du. Interesatuak urriaren 18rako entregatu beharko dituzte argazkiak Udaleko Euskara Batzordean (Kultur Etxea (Euskara Saila), Kalebarren plaza 3).

## ‘Ez gara Palestinaz ari’, gaur Herriko Antzokian

Elgoibarko Izarrak *Ez gara Palestinaz ari* emanaldia antolatu du gaur gauerako. Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariek sortutako ikuskizuna da, eta bertsoak, musika eta poesia nahasten ditu, besteak beste. Haurtzaroz, egoaz, askatasun pertsonalaz, beldurraz edota gizentasunaz mintzatuko dira, beste gai batzuen artean. 20:30ean hasiko da saioa, Herriko Antzokian. Txarteldegia 20:00etan irekiko dute, eta sarrerak aurrez erosi ez dituztenek momentuan bertan izango dute erosteko aukera. Sarrerak bost euro balio ditu.

## 245 lagunek hartu zuten parte gau krosean

Yeray Varela eta Cristina Loeda izan ziren irabazleak

**M**intxeta atletismo taldeak antolatuta, Gau Krosa jokatu zuten zapatuan Elgoibarko kaleetan zehar. Laugarren urtez antolatu dute ekitaldia, Mugertza kroserako dirua biltzeko helburuarekin, eta beste behin ere, korrikalariak ez zuten hutsik egin. 245 lagunek hartu zuten parte, eta Yeray Varela oñatiarra eta Cristina Loeda eibartarra izan ziren irabazleak. Iñigo Lariz laugarren postuan sailkatu zen eta bera izan zen lehen elgoibartarra gizonetzkoetan. Emakumezkoetan, berriz, Cristina Villalobos izan zen elgoibartarren artean onena, eta sailkapen nagusiko bigarren postuan amaitu zuen proba. Sailkapen osoa eta argazki gehiago ikusteko: [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net)




20:00ak puntuan hasi zen lasterketa Kalegoen plazan.



Iñigo Lariz, lehen elgoibartarra gizonetzkoetan.



Cristina Villalobos, lehen elgoibartarra emakumezkoetan.



Cristina Loedak irabazi zuen emakumezkoetan.



Lasterketako lehen hiru sailkatuak ahalegin betean.



Ainhoa Aduriz, semearekin helmugan.



Korrika egiteko elastikoak banatu zituzten antolatzaileek.



Udal ordezkariak eta Jose Gurrutxagak banatu zituzten sariak.



# Urriaren 13an egingo dute Debabarrena BTT martxa

Ibilbide luzea eta laburra izango dira aukeran

Urriaren 13rako antolatu dute Debabarrena BTT martxaren bosgarren edizioa, eta aurten ere bi ibilbide egongo dira aukeran; bata 25 kilometrokoa, eta bestea, 45 kilometrokoa. 16 urtetik gorako edonork hartu dezake parte, eta proba amaitzeko bost ordu izango dituzte gehienez. Interesatuek urriaren 12a baino lehen eman beharko dute izena, [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunean. Partaideen artean hainbat opari zozketatuko dituzte antolatzaileek. Proba 9:00etan hasiko da, Mintxetan.



## Liga txapelkunaren garaikurra emango diote bihar Concepto Egileri, Olaizaga kiroldogian

Areto futbol txapelketako bigarren jardunaldia jokatu du bihar Concepto Egilek Olaizaga kiroldogian. Iruñeko San Juan taldea izango du aurrez-aurre, baina norgehiagoka hasi aurretik, iazko Liga Txapelketako irabazlearen garaikurra emango dio Euskal Federazioak Elgoibarko taldeari. Debabarrena klubeko arduradunek herriarrei dei egin diete biharko zita honetan parte hartu eta jokalariei animuak ematera joateko. Concepto Egilek ondo baino hobeto hasi du denboraldia, izan ere, 4-11 irabazi baitzuen joan zen astean Guadalajaran, Siguenza taldearen kontra.

Era berean, denboraldiko bonua ateratzeko aukera dagoela gogorarazi nahi dute. Urteko kuota 50 euro balio ditu, eta laborako hiru ontzi edo beste opariren bat jasoko dute abonatu txartela egiten dutenek. Dagoeneko kuota ordaindu dutenek bihar bertan jaso ahal izango dituzte karneta eta opariak.

## 19 emakumek hartu dute parte Emakume Kirolarien estreinako bileran



Udaleko Berdintasun Sailak deituta Emakume Kirolarien bilera egin dute aste honetan, eta adin eta alor desberdinetako 19 emakumek hartu dute parte. Arduradunak "pozik" agertu dira emakumeek emandako erantzunarekin, eta bilera parte-hartzailea izan zela nabarmendu dute. Ekarpenean asko egin zituzten, eta urtea amaitu bitartean sei bilera egingo dituztela aurreratu dute. Bigarrena, pare bat aste barru izango da.

## EMAITZAK

### ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Oiarpe 22 – Lagunak 20 (2. mailako kad.)

Hernani 22 – Lagunak 5 (2. mailako jub.)

### ARETO FUTBOLA

Siguenza 4 – Concepto Egile 11 (2. maila)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldogian)

Zapatua, 21

19:30 Concepto Egile – San Juan (2. maila)

### ESKU PILOTA (Ikastolan)

Barriakua, 20

21:30 Lagunak – Eibar (3. mailako nag.)

Zapatua, 21

12:30 Lagunak – Intxurre (2. mailako kad.)

### PALA (Ikastolan)

22:00 Lagunak – Mundarro (2. mailako nag.)

22:45 Lagunak – Atxurbide (2. mailako nag.)

## Tenis ikastaroak urriaren 4an hasiko dira

40-15 elkarteak urriaren 4an hasiko du aurtengo denboraldia. Batetik, tenis ikastaroak prestatu dituzte. Adin eta maila desberdinetako jendearentzako saioak eskainiko dituzte Mintxetako pistan. Astean bi orduko saioak izango dira. Aurten, Jonathan Taborcia ATP torneotan ibilitako tenislaria izango da irakaslea. Interesatuek Olaizaga kiroldogian eman beharko dute izena, eta antolatzaileek lehen bailehen izena emateko gomendioa egin dute. -informazio gehiagorako: 696 577 872 edo 670 665 797.

Bestalde, 20 orduko padel ikastaroak martxan daude dagoeneko, baina oraindik eman daiteke izena, Olaizaga kiroldogian. Informazio gehiagorako 687 421 602 telefonora deitu daiteke.



# ESKUBALOIA ETA JAIA



Iaz bezala, 14 talde izango ditu aurten Sanlok; 300 bat fitxa inguru.

Oporrak amaitu dira eta Sanlo eskubaloia taldea hasi da lanean. Joan zen asteburuan eskubaloia eta jaia uztartu zituzten, SanloBEER festaren barruan, eta egitarau oparoa prestatu zuten astebururako. Eguetik domekara bitartean egin zuten garagardo feria, klubarentzako finantzazioa lortzeko, eta arduradunek esandakoaren arabera, herritar asko ibili ziren Maalan jarri zuten karpa erraldoian. Garagardo eta saltxitxak tarteko, kirolak ere izan zuen lekua asteburuan: hezurrei hautsa kendu eta kantzara itzuli ziren berriz beteranoak, emakumeak zein gizonezkoak, eta klubeko taldeen aurkezpena egiteko ere baliatu zuten asteburua. Argazki gehiago ikusteko: [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net)



Gasteizko taldearen kontra jokatu zuten emakume beteranoek.



Gizonezko beteranoek bi talde egin eta elkarren kontra jokatu zuten.





Giro bikina izan zen kiroldegian.



Udal agintariekin inauguratu zuten SanloBEER festa.



13na berdindu zuten partida emakumeek.



Jende asko batu zen domekan paella jateko.



**LANA**

**ESKAERA**

- Klase partikularrak ematen dira: Batxilergoko matematika, LH, DBH, kontabilitatea, ekonomia...  
☎ 666 042 710
- Adin eta maila guztientzako ingeles eskolak ematen ditut. Azterketa ofizialetarako prestakuntza ere bai: Business English... Talde txikiak.  
☎ 680 858 550 / 943 741 594
- Neska eskaintzen da orduka lan egiteko. Gaeuz ere bai. ☎ 632 239 368
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. ☎ 618 814 064
- Lizentziatua eskaintzen da matematika, fisika, marrazketa... eskolak emateko. Euskaraz zein gaztelaniaz, DBHn eta Batxilergoan. Taldea edo banaka.  
☎ 699 495 278
- LH eta DBHko klase partikularrak emango nituzke.  
☎ 637 010 168
- Alemaniera eskolak ematen dira. Metodo erraza eta atsegina. Ikasle trukea eta azterketen prestaketa (EO).  
☎ 670 793 312
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Elgoibarren edo Eibarren lan egiteko prest. Klinika titulua daukat. ☎ 619 511 789 (Itxaso)
- Frantsesa, latina, euskara eta gaztelania eskolak ematen ditut. ☎ 617 114 185
- Emakume lanerako prest. Interna moduan ere bai.  
☎ 632 395 829
- Emakume arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da, nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. ☎ 682 255 834
- Emakume lan bila: sukalde laguntzaile, zerbitzari, nagusi edo ume zaintzaile, garbitzaile...  
☎ 606 354 982
- Mutila eskaintzen da baserri inguruak garbitu, animaliak gobernatu, ortuak zaindu edo beste hainbat lan egiteko. ☎ 620 710 139 (Aitor)
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. ☎ 646 821 678
- Neska gazte euskalduna arratsaldetan umeak zaintzeko prest. ☎ 615 124 660

- Emakumea garbiketarako egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka, goizez. ☎ 699 232 823
- Emakumea lan bila. Orduka, goizez.  
☎ 672 584 590
- Emakumea garbiketara lanak egiteko prest.  
☎ 616 328 060
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo internan. ☎ 608 820 954
- Emakumea eskaintzen da etxean zein ospitalean adinekoak zaintzeko. Gaeuz ere bai. Esperientzia eta autoa. ☎ 600 005 160
- Magisteritzako ikasleak klase partikularrak ematen ditut. ☎ 634 588 605 (Itxaso)
- Emakumea lanerako prest. Orduka.  
☎ 680 121 252
- Emakumeak orduka lan egingo luke. Nagusiak zaintzen eta garbiketarako egiten esperientzia.  
☎ 619 690 415
- Emakumea lanerako prest. Asteburuetan ere bai.  
☎ 690 359 554
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest.  
☎ 666 008 974
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna ere bai.  
☎ 648 505 985
- Gizonezkoa eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo baserrian lan egiteko.  
☎ 686 077 316
- Emakumea lan bila: garbitzaile, ume edo nagusi zaintzaile, sukalde laguntzaile... Orduka edo internan.  
☎ 638 884 104
- Emakumea garbiketara lanak egiteko prest, goizez zein gaeuz.  
☎ 696 583 671
- Ingeles eskolak ematen dira, etxez-etxe.  
☎ 943 744 062 / 680 319 002

**ESKAITZA**

- Sukalde laguntzaile behar da Elgoibarren, astean zehar lan egiteko.  
☎ 687 051 789
- DBH1 eta DBH4ko ikasleei ingeles eskolak emateko pertsona behar da, Mendaron.  
☎ 695 730 442

**ETXEBIZITZAK**

- Etxea salgai edo alokagai Errosario kalean. Hiru logela, egongela handia, sukalde eta bainugela. Igogailurik gabe. Berritua.  
☎ 647 438 640
- Etxea alokatzen dut altzariekin. Eguzkitsua eta igogailuarekin.  
☎ 653 863 482
- Etxea konpartituko nuke beste bikote batekin, Errosario kalean.  
☎ 699 813 826
- Seme-alabak dituen bikoteak etxea hartuko luke alokairuan. Hilean 500 euro ordainduko genuke. Berogailua ezinbestekoa.  
☎ 684 019 044

**GARAJEAK**

- Marradun bi garaje salgai Ikastola alboan, 4. eta 5. zenbakietan.  
☎ 943 743 125 / 686 480 615
- Garaje itxia alokatzen da Kiroldegi parean.  
☎ 689 781 069

**BESTELAKOAK**

- Lursail txiki bat erosiko nuke herritik gertu.  
☎ 646 966 198

**KINTOAK ETA OSPAKIZUNAK**

- 1948an jaiotako bazkaria irailaren 28an. 12:00etan batuko dira Kalegoen plazan. Mokadutxo egin, eta ondoren, Sigma jatetxean izango da bazkaria. Interesatuak 65 euro ordaindu beharko dituzte. Laboral Kutxa: 3035 0007 21 0071127835.  
☎ 943 742 216 (Julian Mujika)



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)



Etxejabeen elkarteko lehendakaria naiz eta etxepean komertziorako lokal bat duen jabeak etxebizitza bat egokitu du lokalean. Jakin nahi dut ea aldaketa horiek egiteko eskubiderik duen, izan ere ugazaba batzuek ez gaude ados horrekin.

Edozein jabek egin ditzake aldaketak bere lokalean; baina lokala bizitzeko egokitu ere, baina beti komunitatearen funtzionamendua arautzen duten Estatutuek, jabetza horren erabilerari dagozkion mugak jartzen ez badizkie.

Kontutan izan behar da, obra hauek egiterakoan guztienak diren baliabideei ez diela eragin behar, eta eragiten badie, euren baimena behar dela. Adibidez leihoa dagoen lekuan atea jarri edo fatxadak hodiak, kableak... Aldaketa hauek egiteko bizilagun guztien adostasuna behar da. Guzti hori egiteko dagokion udalaren baimena ere behar da.

**Gomendioa: Estatutuek batzuetan debekuak ezartzen dituzte eta lokal jabeek ezin izaten dituzte nahibeste aldaketa egin. Horrelakoetan Udalaren eta etxe-jabe guztien baimena behar izango da.**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749







• Zorionak **Luken**, bihar 2 urtetxo betetzen dituzulako. Ondo-ondo pasa. Patxo bat.



• Bat, bi, hiru... eta lau! Lau urte potolo etxeko txapeldunak. Zorionak, **Asier**, etxeko denon partez.



• Zorionak, **Olatz**, gaur 8 urte! Ondo-ondo pasa ospakizunean. Muxu bat familiako partez.



• Zorionak, **Mari**, txata, hilaren 17an 92 urte bete zenituelako. Aterpeko lagunak.



• Zorionak, **Udane**, astelehenean 7 urte egin zenituelako. Etxeko guztien partez, eta bereziki, Goiatzen partez.



• Zorionak, **Uxue**, astelehenean 5 urte beteko dituzulako. Muxu asko gurasoen eta bereziki Danelen partez.



• Zorionak, **Haizea**, zure 6. urtebetetzear. Patxo handi bat familiako partez.



• Zorionak, **Jara**, atzo 9 urte egin zenituelako. Muxu asko familiaren partez, bereziki Mariaren eta Celiaren partez.



• Zorionak, **Haizea**, irailaren 16an 3 urte egin zenituelako. Muxu potolo bat etxeko partez.



• Zorionak, **Nora**! Zorionak pitxin, familia osoaren partez.



• Zorionak, **Pepito**, 5 urte egin dituzulako. Jarraitu golak sartzen! Muxu handi bat Nora, aitaxo eta amatxoren partez.




• Zorionak, **June** maitxia! Edarto pasa genuen zure 5. urtebetetze egunean. Patxo goxo bat guztien partez eta marrubizko bat Malenen partez.



• Zorionak **bikote!** 7 urte bete dituzuelako. Muxu handi bat familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Ane**, familia guztiaren, eta bereziki, ahizpa Noraren partez. Ondo pasa lagunekin.



• Zorionak **hirukote!** Primeran pasa genuen zuen konbitean!



• Zorionak, **Mikell** 17 mila muxu! Ondo pasa eguna, txapeldun! Familiako partez.



• Zorionak, amama **Lolita!** Muxu asko munduko amama onenarentzat. Familia guztiaren partez.

**Konfiantzan IKASTOLA**  
 HH 0-1 (2012an eta 2013an jaiotakoak)  
 azarotik otsailera hasteko  
 matrikula zabalik  
 irailaren 16tik 27ra

Ordu-tegi zabala: 7:30 - 19:30  
 Jai-zubietan eta oporretan irekita

elgoibar ikastola

## 20 barixakua

### Aisialdia

17:30 Kribilka

Elgoibarko Izarrak antolatuta, Kalegoen plazan.

### Musika

18:30 Kale Kantariak

Kale Kantarien entsegua, Kultur Etxean.

### Kultura

20:30 'Ez gara Palestinaz ari'

Bertso, musika eta poesia emanaldia. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Herriko Antzokian.

## 22 domeka

### Kirola

9:30 Mendi irteera

Ikastolako familiek antolatuta, Arratera egingo dute irteera. Gaztetxe aurreko aparkalekuan batuko dira.

### Mendi ibilaldia

10:00 'Dolmenen ibilbidea'

Debegesak antolatuta, Karakatekik Irukurutzetara arteko ibilaldia egingo dute. Karakateko aparkalekuan batuko dira.

### Erakusketa

18:30 'Deshobiratzen, duintasuna berreskuratzen'

Aranzadik eta Elgoibar1936 taldeak antolatuta, erakusketa ikusteko azken eguna izango da.

### Musika

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua.

Herriko Antzokian.

1. Pamplona feria del toro (M. Turrillas)
2. Hegoarabako dantzak (Juanma Saez)
3. Xian (H. Hogestein)
4. Diez melodías vascas (Jesus Guridi)
5. La vuelta al mundo en 80 días (Otto Schwarz)

## 26 eguna

### Musika

22:00 'Sotoko Hotsak'

Sinuosek antolatuta, Borrokan taldearen kontzertua, Kultur Etxeko sotoan. Sarrera, 3 euro.

## 27 barixakua

### Erakusketa

18:30 '2 kamera eskas'

Roberto Botija eta Angel Ispizuaren argazki erakusketa, Kultur Etxean. Urriaren 11ra arte egongo da ikusgai.

### Musika

23:00 'Sotoko Hotsak'

Sinuosek antolatuta, Cuzo taldearen kontzertua, Kultur Etxeko sotoan. Sarrera, 3 euro.

## BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

## GUARDIAK

### Egunez

9:00 - 22:00

20 Ibañez  
21 Garitaonandia  
22 Garitaonandia  
23 Etxeberria  
24 Fernandez  
25 Yudego  
26 Zabaleta  
27 Barrenetxea

### Gauetz

22:00 - 9:00

Yudego  
Garitaonandia  
Garitaonandia  
Etxeberria  
Barrenetxea  
Yudego  
Garitaonandia  
Barrenetxea

### Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

### Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel: 943 751 638

### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)  
Tel: 943 751 384



Bazkide izateko epea zabalik! Ikasturte osoko kuota 45€. Familia ugariarentzat eta ongizateko erabiltzaileentzat deskontuak. Informazio gehiago Ludotekan.

Asteazkenetik Igandera,  
17:00 - 20:00!

Gabriel Kurutzelaegi 4  
943 743 228



## ZINEA

«La bicicleta verde»  
(Ongarri zinekluba)

20, barixakua: 22:15

«Antes del anochecer»  
(Ongarri zinekluba)

21, zapatua: 19:00/22:15  
22, domeka: 19:00  
23, astelehena: 21:30

Zuzendaria: Haifaa Al-Mansour. Arabia Saudi eta Alemania. 2012. Iraupena: 98 min. Drama. Aktoreak: Reem Abdullah, Waad Mohammed, Abdullrahman Al Gohani. Arabia Saudiko hiriburuan bizi den 10 urteko neskatu baten istorioa da. Bizikleta bat ikusten du salgai, eta nola edo hala bizikleta hori eskuratu nahi du, Amak ez dio utziko, emakumeen duintasunaren kontra doalako.

Zuzendaria: Richard Linklater. AEB, 2013. 108 min. Drama. Aktoreak: Ethan Hawke, Julie Delpy. Jesse eta Celine Grezian elkartuko dira, hainbat urte elkar ikusi gabe egon ostean. Urte horietan beraien bizitzan zer gertatu den jakingo dugu.





# Gremioen

# GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea  
☎/Faxa: 943 74 31 16  
[www.biena.es](http://www.biena.es)  
[info@biena.es](mailto:info@biena.es)

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilloia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea  
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
[www.lodoso.es](http://www.lodoso.es)

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2  
☎ 943 531 847  
☎ 647 463 436 (Floren)

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 254 522

### Pagoaga

Biltegia eta tailerra  
San Antolin, 13  
☎ 943 740 279  
Bulegoa eta erakusketa  
Pedro Migel Uruzuno, 8  
☎ 943 943 740 512  
[pagoagasa@euskalnet.net](mailto:pagoagasa@euskalnet.net)

### Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 756 044/659 334 323

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 · Mendaro  
☎ 943 755 062/607 755 062

### Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 740 530/605 714 905  
Faxa: 943 531 825



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkalko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
Mendaro  
☎ 659 934 964



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20



# Gremioen GIDA



# zergatik ez?

EUSKARAREN ERABILERA SOZIALA  
BULTZATZEKO TAILERRA



## ZER IKUSI, HURA EGIN

- ◆ Euskararen erabilera soziala bultzatzeko tailerra.
- ◆ Norentzat: 2-6 urte bitarteko umeen gurasoentzako.
- ◆ Noiz: Azaroak 9 larunbata.
- ◆ Non: Kultur etxean.
- ◆ Prezioa: 10€ (8€ bazkideek)
- ◆ Informazio gehiago: Elgoibarko Izarran  
(943 741 626 edo [atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com](mailto:atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com)).
- ◆ Izen-ematea: Elgoibarko Izarran, Ubitarte 4 behea.